

UDALBERRI

8. zbkia. Ataungo Udal Aldizkaria 1999ko Apirila

- 
- A scenic view of a village. In the background, a large stone church with a bell tower stands on a hill. Below it, several houses are visible, including a prominent white house with red window frames and a blue house in the foreground. A river flows through the village, reflecting the sky and buildings. The foreground is filled with lush green grass and trees.
- **1999RAKO AURREKONTUA**
 - **ETXEBIZITZA BERRIAK SAN GREGORION**
 - **ERREKA BIDERAKETAK HASI DIRA EGITEN**
 - **ZUHAITZ ALDAKETAK MENDIAN**
 - **LEHENENGO MEDIKU ETXEAK ENKANTERA. BERRIAK AMAITZEAR**
 - **1998-99 : 45 MILIOI PEZETA BIDEAK HOBETZEN**
 - **SAN GREGORIOKO ESKOLAK ERABERRITZEN**
 - **2000. URTERAKO ZINEMA ANTZOKIA**
 - **ATAUNGO KARTOGRAFI-TOPONIMI MAPA**
 - **ETA ABAR...**



sarrera

Herritar lagun,

Iritsi gara legegintzaldi amaierara. Saiatu gara, kaleratu ditugun zortzi Udalberri hauen bidez, lau urte hauetan udalgintzak eman duena herritarroi gerturatzen. Eguneroko lanean eta ahaleginean murgildutako lau urte izan dira. Beti ez da posible izan ordea, hainbat ekimen nahi bezala bideratzea. Espero dut herritarrok ulertuko duzuela, edozeinetara ere gure jardunak norbait mindu izan badu, barkamena eskatzea besterik ez dagokit.

Herri ikuspegitik Ataun zerbitzatzea eta etorkizunerako prestatzea izan da gure helburua. Eta modu batean edo bestean lan eginez zeregin honetara bildu direnei eskertu nahi diet beraien lana. Etengabe eta itzalean, Udal gidaritza izan diren Pello, Santi, Iñaki eta Jone zinegotziei, eguneroko lanaz gain hainbat egitasmo proposatu, bultzatu eta burutzen etsi ez dutelako. Baita oposizio lanetan izan diren zinegotziei ere, askotan aurrez-aurre izan garen arren, gai ezberdinen aurrean beraien ikuspuntua agertuz eztabaida eta udalgintza aberastu izanagatik.

Eta nola ez, batzorde ezberdinetan beraien iritzia eman edo eta lan eginez parte hartu dutenei; eta era batera edo bestera herri ekimen ezberdinetan lanean izan direnei, lanik arruntena eginaz bada ere herriarekiko konpromezua hartu izan duten guztiei.

Denon ahalegina beharrezkoa izan da eta aurrerantzean ere beharrezkoa izango da, Ataunek erronka handiak ditu eta, aurrez-aurre.

Aitor Auzmendi Asurabarrena

Alkatea

2

sakonean

6

0

1

2

3

4

5

6

23 I milioi pezeta 1999rako

Zuhaitz aldaketak mendian

9 etxebizitza eraikiko dira San Gregorion

2000. urterako zinema-antzoia

Erreka bideraketak egiten hasi dira

Mediku-etxeak enkantera

Udal zerbitzuak etxe berrietan

1998-99: 45 milioi bideak hobetzen

**Udarako San Gregorioko eskolak
eraberrituta**

**Cuba, Nicaragua eta El Salvador-ek
ataundarron laguntza izango dute.**

Alkatearen aurkako epaiketa

**Diaporama: Joxemiel Barandiaran eta Euskal
Mitologia**

Ataungo kartografi-toponimi mapa

231 MILIOI PEZETA 1999rako

Azken urte hauetan dagoeneko ohitura bihurtu dugun moduan, aurtengo aurrekontua ere urtea hasi aurretik onartua izan da, 1998ko abenduaren 30ean egindako Udalbatzaren Osoko Bilkuran, hain zuzen ere.

Onartutako aurrekontuaren kapitulukako laburpena, ondorengo hau da:

**127 MILIOI
PEZETA
AURREIKUSI DIRA
INBERTSIOETARAKO**

KAPITULUA	IZENDAPENA	PEZETAK
	GASTUAK	
	<i>A) Enagike ta arruntak</i>	
1	PERTSONALA	27.402.994
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUAK	53.533.000
3	FINANTZA GASTUAK	2.203.176
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	10.582.500
	<i>B) Kapital enagike tak</i>	
6	INBERTSIO ERREALAK	126.943.269
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	4.125.000
9	FINANTZA PASIBOAK	6.827.732
	GASTUAK GUZTIRA	231.617.671
	SARRERAK	
	<i>A) Enagike ta arruntak</i>	
1	ZUZENeko ZERGAK	16.603.904
2	ZEHARKAKO ZERGAK	1.800.000
3	TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	22.417.127
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	93.920.000
5	ONDARE SARRERAK	13.010.100
	<i>B) Kapital enagike tak</i>	
6	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	14.648.271
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	47.000.000
	SARRERAK GUZTIRA	231.617.671

Iaz bezala, aurtan ere inbertsioena da atalik nagusia diru-kopuruari dagokionean, ia 127 milioitakoa, kopuru handia Ataunek izan ohi dituen baliabideetarako.

Inbertsioen atal honetan aipagarrienak, honako hauek ditugu: San Gregorio eta San Martinen erreka bideraketak alde batetik, San Gregorioko aparkaleku berria bestetik, San Martingo zinema-antzoki aretoa (iaz jarritakoaz gain) eta Erremedio inguruko lurren erosketak. Hauek gain, diru-kopuruz txikiagoak diren, baina ez garrantzi gutxiagoko inbertsioak azaltzen dira, hala nola, base-ri bideetan konponketak, San Gregorioko eta San Martingo mediku kontsultategien ekipamendua, nitxo berriak egitea, liburutegi berriaren ekipamendua, hirigintza planeamenduaren garapena eta abar.

Ataungo Udalak bere diru-sarrera arruntetatik inbertsioetara zuzendu ditzaken diruak 43 milioi dira. Hauek gain, Diputaziotik 22 milioiko diru-laguntza jasotzea aurrizkustun da eta bestalde San Gregorioko lehengo aparkalekuaren lurraren salmentarekin 14,5 milioi jasoko dira. Guzti hauek nahikoa ez eta, diru-sarrera eta gastuak berdintzeko 47 milioiko mailegua eskatzea aurrizkustun da baita ere.

Ondorengo lerroetan atalez-atal zehazten da aurtengorako aurrekontua:

I. GASTUAK

1.1. Pertsonala (27.402.994):

Udal langileen soldatak eta hauen gizarte segurantzaren ordainketak daude atal honetan aurreikusita. Ohikoak 6 langile izan arren, lan be-
reziatarako kontratatzen diren lan-

gileen soldatak ere hemen sartzen dira.

1.2. Ondasun arrunt eta zerbitzuak (53.533.000):

Atal zabala da hau. Hemen sartzen dira Udal eraikuntza eta gaineratuen kontserbazio, mantenimendu eta artapenak, eta hauen funtzionamenduak sortzen dituen ohiko gastuak, energia elektrikoa eta aseguruak adibidez. Baita Udalak ematen dituen hainbat zerbitzuren kostua ere. Hona hemen adibide batzuk:

Bide publikoen mantenimendu eta kontserbazioa

(Base-rietako bideena barne)5.000.000

Ur sarea eta saneamenduaren

kontserbazio eta mantenimendua2.000.000

Udaletxea, Atsedeen-Toki, Eskola, Mediku-etxeak, hilerriak, Auzo eta Udal Kiroldegia, Zelai frontoia eta Erro ize aterpearen kontserbazio eta mantenimendua3.450.000

Makineria, instalazioak eta tresneria475.000

Ekipamendu informatikoa650.000

Bulegorako materiala975.000

Liburutegirako erosketak525.000

Udaletxea, Atsedeen-Toki, Eskola, Mediku-etxeak, hilerriak, Auzo eta Udal kiroldegia, Zelai frontoia eta Erro ize aterpeko hornidurak (argi indarra, gaso ila ...)3.440.000

Herri argiteriaren energia elektrikoa2.650.000

Ur Kontsorzioari deposituetatik irretzen den uraren araberako onlaintu beharrekota3.850.000

Udaletxea, Eskola, Mediku-etxeak, eta Auzo eta Udal kiroldegiaren telefono eta posta zerbitzuak2.063.000

Aseguroak1.115.000

Harreman ofizialak500.000

Udalberri aldizkaria540.000

Gastu juridikoak450.000

Herriko festa ezberdinak4.775.000

4 MILIOI,
BEHARREAN
DAUDEN
HERRITARREN-
TZAKO

ZINEMA-
ANTZOKIA
EGOKITZEKO
37 MILIOI
AURTEN

**SAN
GREGORION
APARKALEKU
BERRIA
EGINGO DA**

**NITXO
BERRIAK
ERAIKIKO
DIRA**

Garbiketa zerbitzuak: Udaletxea,
Mediku etxeak, Eskola, Zelai frontoia,
komun publikoak ... 4.850.000

Zabor bilketa zerbitzua (Sasietak)6.150.000

Hirigintza mailako azterketa eta
lan teknikoak2.600.000

Tributuen gestio agatik
Foru Aldundiari eta A.T.R.ri700.000

Gestoria, itzulpen eta antzeko
zerbitzu batzuk450.000

Beharrezko dauden etxez etxeko laguntza2.400.000

Aldibaterako lan kontratazioak400.000

Auzo eta Udal kiroldegien ustiaketa1.800.000

Udal langileen dieta eta kilometria350.000

Alderdiei dirulaguntzak eta
zinegotzien dieta eta km1.100.000

Zerrenda luzeegia ez egitearren,
partida batzuk aipatu gabe gelditu
dira eta beste batzuk elkarrekin batu
ditugu.

**1.3. Finantza gastuak
(2.203.176):**

Aurreko urteetatik datozen eta or-
daintzen ari diren kredituei dagoz-
kien interesei buruzkoa da diru
izendapen hau. Iazkoa baino txikia-
goa da.

**1.4. Transferentzia arruntak
(10.582.500):**

Instituzio, elkarte eta pertsona ez-
berdinei ekimen jakin batzuk au-
rrera eraman ahal izateko luzatzen
zaizkien diru ordain eta laguntzak
sartzen dira atal honetan:

Enerio - Amlar Mankomunitatea230.000

Eudel50.000

Goieki945.000

Emergentziazko laguntzak: Beharrak
dituzten familiei, presoiei e.a.1.650.000

Jubilatuaren ekintzetarako887.500

Kultur eta kirol ekintzetarako3.180.000

Eskolaz kanpoko kirolaren
dinamizazioa400.000

Bestelako gizarte zerbitzuak
(0'7 ekimena, Gurutze Gorria,
Odol-emaileak, Seaska,
Nafarroa Oinez e.a.)1.084.000

Goimen1.750.000

1.6. Inbertsioak (126.943.269):

Ondorengo hauek dira atal hone-
tan 1999rako aurreikusi diren inber-
tsioak:

Lur erosketak350.000

Herri-Artegiaren hobekuntza1.000.000

Ur-hornidura sarearen hobekuntza1.000.000

Larratze ondoko itxitura1.400.000

San Gregorio eta San Martingo
erreka bideak22.218.269

Baseri bideak2.500.000

San Gregorioko aparkaleku berria16.000.000

Lauztierreka bidean
egin beharreko erreforma4.000.000

San Gregorioko mediku
kontsultategiaren ekipamendua2.500.000

Zinema antzokia37.000.000

San Martingo mediku
kontsultategiaren ekipamendua1.000.000

Hilerrietan nitxo berrien eraikuntza8.000.000

Liburutegi berriaren ekipamendua2.500.000

Hilerrietako nitxo en tapak625.000

San Martingo elizako erlojua650.000

Planeamendua3.000.000

Erremedio inguruko lurren erosketa20.000.000

Eskenato kirako toloa100.000

Buruhaundiak100.000

II. Ataun Aztergai beka argitalpena500.000

IV. Ataun Aztergai beka argitalpena250.000

Herri basoetan inbertsioak250.000

1.7. Kapital transferentziak (4.125.000):

Atal honetan, inbertsio jakin batzuk egin ahal izateko beste instituzio batzuei zuzentzen zaizkien laguntzak (Atauni dagokion diru ordaina) sartzen dira:

PAT (Escola irakasleei apoioa) dela eta Ondiziko Udalarari.....50.000

Azpiegitura hidrauliko en kanoa dela eta Ur Konsozioari.....3.250.000

Goierriko Lambide Eskolako inbertsio etarako Goierriko

Herrien Ekintza Fundazioari.....825.000

1.8. Finantza pasiboak (6.827.732):

Aurrez aipatu dugu Udala ordaintzen ari den kredituen interesei aurre egiteko atala. Atal hau aldiz, kreditu hoiei dagokien amortizazioa ordaintzeko da, aurtengoan 6.827.732 pezeta aurreikusi dira horretarako.

2. SARRERAK

2.1. Zuzeneko zergak (16.603.904):

Atal honetan sartzen diren zergak eta beraien bitartez 1999an jasotzea espero ditugun diru kopuruak ondorengo hauek dira:

Landalurren gaineko zerga (kontribuzioa).....708.408

Hirilurren gaineko zerga (kontribuzioa).....5.610.996

Trakzio mekaniko eta ibilgailuen gaineko zerga.....8.424.500

Hiri lurren balio gehitzearen gaineko zerga.....60.000

Ekonomi ibaridura gaineko zerga.....1.800.000

2.2. Zeharkako zergak (1.800.000):

Zeharkako zergetan, ekimen ezberdinak aurrera eramateagatik ordaindu beharreko zergak aurreikusten dira. Ataungo kasuan, "Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga" bakarrik daukagu, eta kontzeptu honetan milioia eta zortzirehun mila pezetako diru sarrera aurreikusi da.

2.3. Tasak eta bestelako sarrerak (22.417.127):

Atal honetan, zerbitzu ezberdinentzat herritarrok ordaindu beharreko tasak sartzen dira nagusiki, eta horrez gain Udalak izan ohi dituen beste sarrera batzuk ere bai, Iberdrola eta Telekomunikazio eragileak (Telefonica, Euskaltel) egiten dituztenak adibidez. Hona hemen kantitaterik nagusienak:

Zabor bilketa tasa.....6.200.000

Estolderia tasa.....2.250.000

Udal hilerri tasa.....1.962.500

Hirigintza baimenak.....770.000

Udal ur-bornidura.....7.820.000

Udal kiroldegia.....312.000

Iberdrola.....645.000

Telekomunikazioa.....467.700

2.4. Transferentzia arruntak (93.920.000):

Herritarrok ordaintzen ditugun hainbat zerga ez ditu Udalak jasotzen, Foru Ondasunak baizik, eta jasotako zerga hoietatik Foru Aldundiak zati bat udalei zuzentzen die, hori delarik Udalaren sarrerarik garrantzitsuenak. Horrez gain, atal honetan sartzen dira ekimen bereziatarako, Udalak beste instituzioetatik jasotzen dituen dirulaguntzak ere. Hona hemen garrantzitsuenak ematearen arabera sailkatuta:

ERREMEDI
INGURUKO
LURRAK
EROSIKO
DIRA,
HERRIKO
GARAPEN
SOZIO-
EKONOMIKOA
HELBURU

HERRIKO
JAIETARAKO 5
MILIOI
IZENDATU
DIRA

•
**URTERO
 BEZALA,
 DIRU-ZATI
 GARRANTZI-
 TSU BAT
 ERABILIKO DA
 BASERRI
 BIDEETARAKO**

•
**47 MILIOIKO
 MAILEGUA
 AURREIKUSI
 DA**

Estatuak

Itundu gabeko zergietako partaidetza215.000

Eusko Jaurlaritzak

Bake-Epaitegiako laguntza150.000

Liburutegiako laguntza135.000

Gipuzkoako Foru Aldundiak

Itundutako tributuetako partaidetza88.000.000

Gizarte laguntzailean kontratatze1.600.000

Enplegu sustapen programarako1.180.000

*Etxez-etxe*ko laguntza programa
burutzeko1.200.000

*Emergentsia*ko laguntza kanpainarako500.000

Kulturaren dinamizazio rako100.000

*Eskola*z kanpo kirola dinamizatzeko140.000

*Jubilatu*entzako laguntza390.000

Besteak

*Etxez-etxe*ko zerbitzua jasotzen dutenak200.000

*Irribazis*ko xederik gabeko erakundeak100.000

*Bestelako*ak10.000

2.5. Ondare sarrerak (13.010.100):

Hemen hiru alor bereiz ditzakegu: Lehenik, Udalak dituen diruak eman ditzaketen interesak. Bigarren, Udalaren jabetzakoak diren baina beste batzuk erabiltzen dituzten ondasunen alokerak (errentak). Eta hirugarren, baso aprobetxamenduetatik jasotzen dena. Hona hemen 1999rako aurrikusitakoa:

Gordailuen interesak800.000

Alokerak (errentak)24.000

Atsedan-Tokiko kanona180.000

Baso aprobetxamenduak12.000.000

2.6. Inbertsioen besterenganaketa (14.648.271):

Atal honetan San Gregorioko gaur egungo aparkalekuaren salmenta aurrikusi da.

2.7. Kapital transferentziak (22.218.269):

Atal honetan, Udalak egin asmo dituen hainbat inbertsio (irteeren 6. atalean aurrikusiak) egin ahal izateko beste instituzioetatik jasotzen ditugun dirulaguntzak sartzen dira. 1.999. urterako, Agauntza errekan bideraketak egiteko Diputazioa ematekoa den diru-laguntzaren aurrikuspena, hain zuzen ere.

2.9. Finantza pasiboak (47.000.000):

Aurrekontu honen gastu eta diru-sarrerak berdintzeko 47.000.000 pesetako mailegua eskatzea aurrikusi da. Dena den, esan behar da, Udal honen borondatea eta nahia, mailegu hortara jo beharrik ez izatea dela, horretarako aurrikusitako gastuak murrizten eta urtean zehar egon daitezkeen sarrera berriei baliatuz. Dena den eta hala eta guztiz ere, mailegu hori gauzatu beharra izan ezker, Udalaren finantza zama, %6koa izango dela azpimarratu behar da.

•
**URTE BUKAERAN
 UDALAREN
 FINANTZIAZIO ZORRA
 %6KOA IZANGO DA**

ZUHAITZ ALDAKETAK MENDIAN



LANDAKETAK EGIN DIREN GUNEA EZKER ALDEAN ETA GARBIKETAK EGIN DIRENA ESKUBIAN

Gipuzkoako Foru Aldundia-
rekin elkarlanean darama
Udalak Ataungo mendien
ustiapena. 1997an Hirimugata eta
dantzaleku artean, Azaola gainean,
pinudia atera zen gunea errepoblatu
da pasa den neguan. Guztira 16'8
hektarea izan dira eta 33.700 pinu
insignis landare aldatu dira, babes-
teko lehen zegoenaz gain 1.000 me-
troko itxitura egin behar izan dela-
rik. Aldaketa hauek eta itxitura
7.817.500 pezeta kostatu dira. Bes-
talde, lur-sail horretara bideak ho-
betu dira bi eskollera egin eta zorua
hobetuz, guztira 2.041.600 peze-
tako kostarekin. Horrez gain au-
rrez pinu aldatutako Amuñain bu-
ruan garbiketa lanak egin dira eta
Sorotxoeta gainean moztaroen
aurkako tratamendua. Guztira
12.308.300 pezeta inbertitu dira
1998an Agauntza mendian.

Aurreko Udalberrin jakinerazi ge-
nizuen Udalak onartu zuela "Paga-

dien antolamendu plana". Aurten
plan horretako lehen pausoei ekingo
zaie, Marumendi eta Agauntza men-
dietako 3 guneeetan. Planak zehaztu-
tako moduan tratamendu erregularra
izango dute eta ondorioz aterako
den egurretik 10 milioi inguru jaso-
tzea espero du Udalak. Ondoren
itxiturak egin beharko dira, Agaun-
tzan batez ere, Marumendin gehiena
itxita baitago. Guztira 7.000 metro
itxitura izango dira 2.800.000 peze-
tako aurrekontuarekin.

Pagadi kontuak alde batera utzi
eta orain pinudia ateratzen ari den
Atxuripea gunean ere pinua landa-
tuko da. 16'05 hektarea guztira
6.998.250 pezetako aurrekontuare-
kin. Horrez gain, pasa den neguan
aldatutako Hirimugata barrenean
eta aurrez aldatutako Amuñain bu-
ruan ere galdutako landareak berrai-
datzen eta garbiketa lanekin jarrai-
tuko da aurten, horretara 2.101.400
pezeta zuzenduko direlarik.

•
**1998AN 12
MILIOI
INBERTITU
DIRA**
•

•
**ATERATAKO
PINUDIAK
LANDATU
EGIN DIRA
BERRIZ**
•

•
**PAGADIEN
PLAN
BERRIARI
EKIN ZAIO**
•

9 ETXEBIZITZA ERAIKIKO DIRA SAN GREGORION

•
**IA
LEGEINTZALDI
OSOA ERAMAN
DIO UDALARI
KONPLEXUA
IZAN DEN
EKIMEN HAU
BIDERATZEAK**

Legeintzaldia haseratik ekin zion Udalak San Gregorion etxebizitzak eraikitzeke egitasmoari. Pauso ezberdin eta ugari eman behar izan dira eta ez dira denak nahi bezain erraz eta azkar eman ere.


Gaur egungo aparkalekuan etxeak egin ahal izateko arau subsidiarioak aldatzea ezinbestekoa zen.

Hori eginik, etxe hauek egin ahal izateko Lauztierrekarako bidea eraldatu behar denez, bidez goiko lursaila erosi zen eta gero Foru Aldundiarekin akordio batetara iritsi ondoren, bide eraldatua izango litza-tekeena oraingo bidearekin permutatu zen. Hau da, Foru Aldundiak gune horretan bide berria egitearen truke, gaur egungo bidea Udalaren esku utzi zuen, etxe berriak aparkalekua eta gaur egungo bidea hartuko

bait du. Ondoren Injelan injenieritza entresari bide hori eraldatzeko proiektua egin zezan eskatu zitzaion.

Baina aparkalekua kentzeak beste leku batetan aparkaleku berri bat egokitzea eskatzen zuen, eta alternatiba ezberdinak aztertu ondoren, Sutegi aurrean errepide eta erreka artean egokitzeari heldu zitzaion. Horretarako horko lur-zoru eta bordak erosi ziren jabetun ezberdinekin akordioak egin eta gero. Gero berriaz, aparkaleku berria izango denaren proiektua egin da.

Bai aparkalekua eta baita Lauztierrekarako bide eraldaketa egiteko obrak ere lehiaketa publikora ateratu ditu Udalak, epe laburrean adjudikatu eta eraikuntza lanei ekingo zaie-larik. Lehenaren aurrekontua 15.794.604 pezetakoa da eta bigarrenarena 3.728.044 pezetakoa.



ETXEBIZITZAK ERAIKIKO DIRA GAURKO APARKALEKUAN



LAUZTIERREKARAKO BIDEA ERALDATU EGINGO DA

•
EGITASMO HONETARA
23 MILIOI ZUZENDU DITU
UDALAK ETA 16 MILIOI
JASO
 •

Jabe ezberdinen lur erosketak 1.993.070 pezeta kosta zaizkio Udalarari eta bi proiektu hoiere redakzioa 529.540 pezeta, zuzendaritza ere beste horrenbeste izango delarik.

Hori bideratuta izanik, gaur egun aparkalekua kokatzen den lur-zorua lehiaketa publikora atera zuen Udalak 97ko irailaren 16an lehenik eta azaroaren 17an bigarrenik. Deialdi honen helburua lur hori bertan 9 etxebizitza egiteko baldintzarekin saltzea zen, oinarritzko prezioa lehen deialdian 17.903.442 pezeta izan zelarik eta 16.113.098 bigarrenik. Besterentzen diren partzelen balio urbanistikoa eta Udal-Administrazioari lagatuko aprobetxamendu urbanistikoaren %10a sartzen dira diru-kopuru horretan. Prezioa jaistearen arrazoia, lehen deialdira inor aurkeztu ez izana izan zen. Deialdi hauetara edozein etxebizitza sustatzaile edo San Gregorion etxeak egin nahi zituztenen arteko herritarren

arteko elkarteak aurkez zitezkeen, azken hauek, adjudikatzeko garaian lehentasuna zutelarik.

Bigarren deialdira aurkeztu zen bakarra Jesus Mari Galparsoro sustatzailea izan zen eta berak eskeinitako prezioa 16.200.000 pezeta. Horrez gain etxebizitzaren salmenta prezioa 145.000 pezeta metro karratuko eta garajeena 60.000 pezeta metro karratuko izango zirela adierazten zuen bere eskeintzan. Udalak jarritako oinarritzko baldintzak eskaintza honek betetzen zituela ikusita, otsailaren 3ko Udalbatzaren Osoko Bilkuran, 9 etxebizitza hoiere sustapena aipatu baldintzetan Jesus Mari Galparsororen esku uztea erabaki zen. Eraikuntza lanak uda aurretik hasita izatea espero da.

Egitasmo honetan orotara 22.574.798 pezeta inbertituko ditu Udalak eta aldiz 16.200.000 pezeta jasoko ditu.



APARKALEKU BERRIA ERAIKIKO DEN GUNEA

2000. URTERAKO ZINEMA-ANTZOKIA



ETXE BERRIEN AURREKALDEAN KOKATUKO DA ZINEMA-ANTZOKIA

**BARNEKALDEA
EGOKITZEARE-
KIN BATERA
KANPOKALDEA
ERE ITXURA-
TUKO DA**

Jakina da non kokatuko den Ataungo zinema-antzoki berria, etxe berrien aurrean gelditu den eraikina zertarako den galdetu baitu ikusi duen herritar orok.


1994ko uztailaren 28an haserako onarpena eman zitzaion gune horretako arau subsidiarioen aldaketan, zinema antzokia modu horretan eraikitzea aurreikusi zen eta ondorioz sustapena aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zen hitzarmenean ere horrela gelditu zen.

Eraikuntza garaian egin den aldaketa bakarra zera izan da: lurrazpiko uren maila uste baino altuagoa izanik, eraikinaren sapaia metro bat inguru altxatu da aurreikusia zegoenetik. Baina, lehen, eraikinaren goikaldean jendea ibiltzea aurreikusten

zen, horretarako baranda bat jarriaz. Orain aldiz, jenderik ez da ibiliko eta barandarik ere ez da jarriko. Beraz barandak izango zukeen altuera berdina du orain eraikinaren sapaia.

Eraikinaren kokamena aldatzea ere pentsatu izan den arren, erabat epezu kanpo zen Udala, bai arauak eta baita Jaurlaritzarekin sinaturiko hitzarmenak ere horrela aurreikusten zutelako, eta atzera egiteak etxe bizitzaren sustapena gelditzea suposatuko zukeelako.

Hori horrela, Zinema-antzokiaren eraikuntzak etxean aurrean hartu duen presentziak kezkatua du Udala, eta barnekaldea egokitze lanekin batean kanpokaldeari ere itxuraketa bat emango zaio.



ZINEMA-ANTZOKIAREN IKUSPEGI OROKORRA

Itxurak itxura mamiak du garrantzia, eta esan, barnekaldean 272 lagunentzako areto bat egokituko dela, 65 metro karratuko eskenatoki batekin. Bertan zinema proiektioez gain, antzerki, jaialdi eta antzeko ekintzak burutu ahal izango dira.

Lehiaketa publikoa egin ondoren obra lanak TRATI S.L. enpresari adjudikatu dizkio Udalak 54.686.139 pezetatan. Prezio honetan mobiliarioa (butakak, proiektio-

rea...) sartu gabe dago, Udalak enpresa espezializatuekin zuzenean erosketak egiteko asmoa baitu merkeago izatearren.

Lan hauei aurre egiteko Udalak 1998 eta 1999rako aurrekontuetan horretara izendatutako diruez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak 10 milioiko dirulaguntza bat agindua dio Udalari. Beraz, ezustekorik ezean, 2000. urtean sartu aurretik obra lanak amaituta izango dira.

•
272
ESERLEKU
IZANGO DITU
•

•
65M2-KO
ESKENATOKIA
EGOKITUKO
DA
•



ZEHARKAKO IKUSPEGIA

ERREKA BIDERAKETAK EGITEN HASI DIRA



t
SAN GREGORION
AGAUNTZA
BIDERATUKO DEN
GUNEA

Aurreko aldizkarian gai honi buruzko argibideak eman genizkizuen, legegintzaldi honetan egitea ezinezko izango zela eta konbenio bidez 2000. urtean egin zitezen lotuta uztea zela Udalaren helburua. Aurre-lan guztiak eginda egon arren(arau aldaketa, proiektua, lur erosketak e.a...) finantziazioa zen arazoa, %75 Eusko Jaurlaritzak jartzea nahi baitzuen Udalak.

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan kontseilaria aldatzea suertatu da eta ardura hori Alvaro Amann jaunak hartu bezain laister bildu ziren Udal ordezkariak bera eta Juan Mari Zubeldia zuzendariarekin. Bilera horren ondorioz hitzarmen bat sinatu da Eusko Jaurlaritza eta Ataungo Udalaren artean, eta horren arabera Aitzarte erreka eta San Gregorion Aguntza erreka bideratze lanak 1999. urtean egingo dira.

MATADERITIK

PLAZARAKO PASEABIDEA

EGOKITUKO DA

Lan hauen aurrekontua 90.206.409 pezetakoa da, eta sinatutako hitzarmenaren arabera 67.654.807 pezeta Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu eta gaineratiko 22.551.602 pezetak Udalak. Udalak ordeberari dagokion zatia Foru Aldundiak ordaintzea nahi du, eta Jorge Letamendia Diputatu jaunak hitz emana die Udal ordezkariari 22 milioi hoiek Diputazioak jarriko di-tuela. Gauzak horrela, bideratze lanak astunak, zailak eta luzeak izan badira ere Udal ordezkariarentzat, esan daiteke obra lan hauek ez diotela zama ekonomikorik suposatuko Udalari.

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan sailak obra hauei dagokien konkurtsoa egin ondoren lanak Amenabar empresari adjudikatu dizkio, eta dagoeneko ekin diote lanari.



t
AITZARTE ERREKA
BIDERATZE LANAK

90 MILIOIKO

AURREKONTUA DUTE

LAN HAUEK

MEDIKU-ETXEAK ENKANTERA

•
**SAN
GREGORIORAKO
ESKAINZARIK
ONENA
18.057.559
PEZETAKOA
IZAN DA**
•



t
SAN GREGORIOKOA



t
SAN MARTINGOA

Pasa den urtean jakinerazi zuen Udalak San Gregorioko eta San Martingo mediku kontsultategiak amaitzean bi mediku-etxe zaharrak saltzeko asmoa. Berrien eraikuntza lanak amaitzean daudela eta, atera dira biak enkantera. Bi enkantera hauek arautuko dituzten Klausula Administratiboen Pleguak udaletxean egon dira ikusgai eta gorantza hobetu zitezkeen lizitaziorako oinarritzko prezioak ondorengo hauek izan dira: San Gregorioko mediku-etxearena 13.554.584 pezeta eta San Martingoarena 16.996.692 pezeta.

Apirilaren 13an amaitzen zen eskaintzak aurkezteko epea. San Gregoriokorako 5 eskaintza jaso dira eta onena 18.057.559 pezetakoa. San Martingorako aldiz 2 eskaintza jaso dira eta onena 20.171.320 pezetakoa.

Orain Udalbatzak onartu behar du eskaintzarik onenei adjudikatzea, eta ondoren 6 hilabeteko epean burutuko dira eskrituraketak.

•
**SAN MARTINGORAKO
ESKAINZARIK ONENA
20.171.320
PEZETAKOA
IZAN DA**
•

UDAL ZERBITZUAK ETXE BERRIETAN

LIBURUTEGIA, MEDIKU KONTSULTATEGIA ETA POSTA ZERBITZUA KOKATUKO DIRA

L 998ko uztailaren 28an Udalbatzak AZSE entpresari futbol-zelaian eraiki diren etheen azpian 175 metro karratu erosteko erabakia hartu zuen. Erosketa horren helburua, hainbat Udal zerbitzu bertan ematea da: liburutegia, posta zerbitzua eta erabilpen anitzetarako gela bat.

Erosketa hau 25.578.334 (+BEZ) kostatuko zaio Udalari, horietatik 17.500.000 pezeta lokalari dagozkio eta 8.078.334 pezeta lokala aipatu zerbitzuetarako egokitzeari.

Hauetz gain, Eusko Jaurlaritzak mediku kontsultategia guztiz amaituta eta zinema-antzokia egin ahal izateko aretoa lagatu behar dizkio Udalari.

Mediku kontsultategia beheko partean lagatzekoa zen Eusko Jaurlaritza, baina Udaletik egokiago ikusi da mediku zerbitzua goikaldean liburutegi ondoan kokatzea, eta posta zerbitzua eta erabilpen anitzetarako gela behekaldera pasatzea. Jaurlaritza eta Azse entpresarekin aldaketa hau adostu da dagoeneko eta horrela egingo da.




**MEDIKU KONTSULTATEGIA ETA LIBURUTEGIAREN SARRERA ETXE
BERRIEN ARKUPEAN**



LIBURUTEGIA KOKATUKO DEN GELA

1998-99: 45 MILIOI PEZETA BIDEAK HOBETZEN



t
USTATXO
ZEHARRA

Gipuzkoako Foru Aldundia-
rekin batean baserri bideak
hobetzeko ahaleaginean
etengabe jarraitzen du Udalak. Oro-
tara 45 milioi inguru inbertituko
dira 1998 eta 1999 urteetan.

Lizarburuko bidea ormigoitu zen
eta eguraldia arrazoi, Itzateko eta
Soro zabalgo bideak ormigoitu gabe
gelditu ziren pasa den urtean.
Hauek aurten egingo dira Bedama
eta Ubelaraingoarekin batean. On-
dorengo aurrekontu hauek dituzte
baserri bide hauek.

Lizarburuko a ormigo itzeaz amaitu.....7.163.615,-
Itzateko bide berria ormigoitu5.499.662,-
Soro zabalgo bidean 450m ormigoitu4.157.237,-
Bedamako bidea ormigoitu.....2.606.114,-
Ubelaraingo bidea ormigo itzeaz amaitu 9.119.920,-

Ohiko moduan diru ordain hauen
%65a Foru Aldundiak jartzen du
Goimenen bitartez, %15a Udalak
eta %20a edo horri dagokion esku-
lana bide horretaz baliatzen diren
baserritarrek eta lur-jabeek. Itzateko
kasuan Goimenek %55a agindu du
eta Udalak %25a jartzeko konpro-
mezua hartu du.

Bestalde, lehenengotakoak asfaltatu ziren Ustatxo zeharreko eta Txuloko bideen egoera oso txarra zen. Kasu hauetarako Goimenek ez du dirulaguntzarik ematen, eta ondorioz, Udalak bide hauek asfaltatu eta %50 partikularrek eta beste %50a Udalak berak ordaintzeko proposamena luzatu zien bertakoei. Hauek ontzat eman ondoren bi bide hauek ere asfaltatu egin dira ondorengo aurrekontuarekin:

Txuloko bidea.....4.427.000,-

Ustatxo zeharreko bidea.....7.243.900,-

Bide batez Udalaren ardurapeko hilerriarako bidea eta Errota Kalekoa ere asfaltatu egin dira 4.326.300 pezetako aurrekontuarekin.



t

LIZARBURUKO BIDEA ORMIGOITUA


**8 MILIOI INGURUKO
KOSTEA DU KILOMETRO
BAT ORMIGOITZEAK**

**ATAUNEK GUZTIRA IA
60 KILOMETRO DITU
BASERRI BIDEETAN**



t

TXULOKO BIDEA ASFALTATUTA



t

ERROTA KALEA

**USTATXO
ZEHARRA ETA
TXULORAKO
BIDEETAN
%50A
BERTAKOEK
JARRI DUTE**

UDARAKO SAN GREGORIOKO ESKOLAK ERABERRITUTA




ERABERRITZE LANAK

**25 MILIOIKO
AURREKONTUA
DU**

Aurrera doaz eskola zaharrak eraberritzeko obra lanak. Udalaren asmoa, auzoak gaur egun dituen beharretara eskola hauek egokitzea da. Artadi elkarteak erabiltzen dituen gunek lehengoan errespetatuko dira barnekaldetik. Horrez gain, beheko solairuan mediku kontsultategia eta haurrentzako jolas-gela kokatuko dira. Artadi goikaldean aldiz, 5 elkarte ezberdinek erabali ahal izateko bulego txiki bana, bilera-gela amankomun batekin. Baita erakusketa gune bat eta 75 lagun inguru sartu ahal izango diren areto bat ere, hitzaldi, proiektzio, batzar eta abarretarako.


Egitasmo honen aurrekontua 22.832.100 pezetakoa da eta Udalbatzak 1998ko abenduaren 16an eginiko Osoko Bilkuran obra lanak TRATI S.L. entpresari adjudikatu zizkion 20.997.835 pezetatan, bera bait zen lehiaketara aurkeztutako eskeintzarik merkeena. Prezio honetan mobiliarioa sartu gabe dago, aulkiak, mahaiak, e.a... 1999rako aurrekontuetan 2.500.000 pezeta izendatuak daude zeregin horretarako. Egokitze lanak aurreikusitako moduan badoaz, ekaina aldera amaitzea espero da.



BEHEKO SOLAIRUA

HAURREK JOLAS-GELA IZANGO DUTE

**MEDIKU
KONSULTATEGIA
ERE BERTAN
IZANGO DA**



LEHEN SOLAIRUA

**5 ELKARTE EZBERDINEK LAN EGIN AHAL IZATEKO
GELAK EGOKITUKO DIRA**

**75
LAGUNENTZAT
ARETO BAT
ERATUKO DA**

CUBA, NICARAGUA ETA EL SALVADOR-EK

ATAUNDARRON LAGUNTZA IZANGO DUTE



t
TABUCA-KO LEHENG
ETXEBIZITZAK

1998AN
850.000

PEZETA
BANATU
DITU
UDALAK

L 998an ere herrialde behartsue-
nekiko lankidetza eta dirula-
guntzak banatzeko deialdia lu-
zatu zuen Udalak, deialdi horretara
inolako irabazi asmorik gabeko 10
erakunde ez gubernamentalek aur-
keztu zituztelarik beraien proiektuak. Udalak 850.000 pezeta zituen
proiektu ezberdinen artean bana-
tzeko, eta deialdian zehaztutako
erizpideen arabera, 1998ko urriaren
7an egindako osoko bilkuran, Uda-
lak ondorengo proiektu hauei la-
guntza eskeintzea erabaki zuen:

Etxebizitza duinak Tabuca-ko nekazari marginatu batzuentzako

“Oscar Romero” solidaritza bat-
tzordeak aurkeztutako proiektua da
hau. El Salvador-eko Ahuachan de-
partamentuan kokatzen da Tabuca
herria eta biztanlegoaren %40 anal-
fabetoa dela esan daiteke, gaur egun
eskolaratzea larri larri %60era iristen
delarik. Lehendik ere nekazal
proiektu batzuk aurrera eramán dira
bertan, eta oraingo proiektu honen
helburua nekazal famili batzuk etxe-
bizitza duin bat izatea da. Hasera
batetan 20 etxebizitza egingo lira-
teke 20 familiei zuzenduta, hauen
eraikuntzan beraiek ere partehartze

zuzena izango dutelarik. Proiektua-
ren aurrekontu orokorra 9.382.586
pezetakoa da eta Ataungo Udalak
283.333 pezeta zuzenduko ditu.

Gunabacoa-ko poliklinikoko larrialdietarako tresnak

Medicus Mundi elkarteak aurkez-
tutako proiektua da hau. Gunaba-
coa, Cuban, La Habana ekialdean,
kokatzen den 103.849 biztanleko
hiri bat da. Proiektu honen helbu-
rue bertako Poliklinikoko larrialdi
zerbitzua hobetzea da, horretarako
tresneria egokiz baliatuz. Egitasmo
honen aurrekontua 1.500.000 peze-
takoa da eta Ataungo Udalak
283.333 pezeta zuzenduko ditu.



t
TABUKA-N ERAIKI DEN
ETXEBIZITZETAKO BAT

Nikaraguako nekazal kooperatiba bat sendotu eta indartzeko.


HONEK elkarteak aurkeztutako
proiektua da hau. La Esperanza
izena duen nekazal kooperatiba sor-
tua da iadanik eta Nikaraguako Pala-
cagüina herrian 54 lagunek osatzen
dute, ondorioz ia 400 biztanleengan
eragina duelarik. Kooperatiba hau
sendotu eta indartu nahi da, partai-
deen garapena bultzatu asmoz, era
berean inguru eta komunitatearena
ere bermatuko delako. Horretarako
15.835.340 pezetako aurrekontua-
rekin hainbat ekimen planteiatzen
dira, diru zati bat bertakoek jarriko
dutelarik eta beste zati bat laguntza
moduan jasoko. Ataungo Udalak
283.333 pezeta zuzenduko ditu ho-
netara, eta esan Idiazabal eta Astiga-
rragako Udalak aurreko urteetatik
datozela ekimen hau laguntzen.

1999rako aurrekontuetan 0'7 eki-
menerako 1.084.000 pezeta izen-
datu ditu Udalak eta epe laburrean
egingo da proiektuak aurkezteko
deialdia.



t
LA ESPERANZA
KOOPERATIBAKO KIDE BATZUK

ALKATEAREN AURKAKO EPAIKETA



^t
**AITOR
AUZMENDI**

L 999ko otsailaren 4ean, eguerdiko 12:30etan, Donostiako penal arloko 1. epaitegiaren hirugarren aretoan ospatu zen Aitor Auzmendi Asurabarrena Ataungo alkatearen aurkako epaiketa.

1996ko abuztuaren 22an Espainiako ejertzitoak 1979. urtean jaio-tako Ataundarren zerrenda eskatu zion herri hontako udalari eta honek ahobatez zerrenda horiek ez ematea erabaki zuen. Aitor Auzmendi alkatea "laguntza ukatzearen" delitua-ren salaketapean epaitu dute.

Epaiketan, Espainiako ejertzitoari laguntza ukatzeagatik 3 hilabetez egunero 500 pezetako ixunaren ordainketa eta 6 hilabetez ardura pu-

•

**6 HILABETEZ
ARDURA
PUBLIKOAN
ARITZEKO
DEBEKUAREN
ZIGORRA ESKATU
ZUEN FISKALAK**

•

blikoan aritzeko debekuaren zigorra eskatu zuen fiskalak, Aitor Auzmendiratzat.

Aitor Auzmendiratz jarrera honen zergaitiak adierazi zizkion epaileari euskaraz eta itzultzailearekin egin-dako hitzaldian. Aitorren esanetan "gizakion arteko banakako nahiz herri izaerako harremanak elkar-rrizketa eta elkarulertzearen oinarrian eraiki behar dira giza eskubideen arian eta justiziaren eta bakearen baloreak geur eganatuz. Ejerztzitoak aldiz, herri egituraren balor erik ezkorrenak biltzen ditubere baitan: indarrezko konponbidea, gizakion berdintasunarekin apurtzen duen jerarkia, kontzientzia askatasun adierazpidearen zapuzketa e.a. Zentzu honetan ejerztzitoaren izaera eta eginbidea uztartu ezinak dira Ataungo udalak bere egiten dituen gizatasun eta elkartasun helburuekin"

Alkateak epaileari adierazi zionaren arabera "Eredu militarrean oinarritutako heziketa alde batera utziz, giza baloreetan oinarritutako gazteen heziketari heldu behar dio gizarteak".

Bestalde alkatearen eginbidetzara lotuz, Aitor Auzmendiratz honako hau adierazi zuen: "alkate naizen momentutik herri bati zor natzaio eta bere Udalbatzak aho batez instituzio militarrekin ez kolaboratzeko hartutako erabakiari. Ezin dut onartu ordezkatzendudan herriarekiko inposaketarik".

Epaiketa honetan testigu bezala parte hartu zuten Ataungo Udalean ordezkaritza duten alderdi guztietako bozeramaileek: Herri Batasunako Joxe Mari Urdangarinek, Herrigintzako Iñaki Eskisabelek eta Eusko Alkartasunako Jone Erauskinetik. Guztiek ere beraien alkartasuna eta babeseskeini zioten Aitor Auzmendiratz.



•
**ATAUNGO
UDALEAN
ORDEZKARITZA
DUTEN ALDERDI
GUZTIETAKO
BOZERAMAILEEK
PARTE HARTU
ZUTEN TESTIGU
GISA**
•

UDALBERRI

DIAPORAMA:

JOXEMIEL BARANDIARAN
ETA EUSKAL MITOLOGIA

t
JOXEMIEL
BARANDIARAN

Diaporama, diapositibez osaturiko ikus-entzunezko emanaldia da. Musikaz eta ahotsez eginiko soinu bandarekin batera, erritmo eta efektuak konbinatutako diapositiben proiektzio sekuentzializatua. Gaur egun merkaturatzen dagoen soinu eta irudien proiektzio garbienetakoa da.

Joxemiel Barandiaran interpretazio zentrua Ataungo Udalak aspaldi heldu zioneko egitasmorik bikainenetakoa da zalantzarik gabe, benetakako erronka izaera duena. Herriak bere seme kuttunari eta Euskal Herria osoari eskaintzen dion esker oneko omenaldi iraunkorra izan nahi du, eta aldi berean, kultura iturria.

Egitasmoaren tamaina ikusita (bai ekonomi ikuspegitik, bai zentruari eman beharreko edukiaren aldetik), zuhurtasunez jokatzeko premia derri gorrezkoa jo du Udalak eta hori dela eta, egitasmoaren gauzatzea epe ezberdinetan eta zatika egitea erabaki: egitura sortzetik hasi eta zentrua burutzeraino

Maila honetan kokatu behar da “Joxemiel Barandiaran eta Euskal Mitologiaren diaporama” egitasmoa.

Joxemiel Barandiaran izan da zalantzarik gabe, euskal mitologia gehien ikertu duena; Ahoz-ahoa eta

SAN GREGORIO ESKOLETAN KOKATUKO DA

mendez-mende iritsi zaizkigu Jentil, Sorgin, Mari, Gaueko, Azti, San Martin Txiki, Kixmi eta beste pertsonaia mitologikoen berri. Oso presente egon da guzti hori Ataunen. Gaur oraindik Jentil edo ta Jentil ondorengo deitzen zaigu ataundarro. Garai hartako Ataunek lehengo bizi-moduen parte bat gorde izan du. Ataunen mitoak bizirik daude.

Herriaren sinismen, kontu zahar eta leiendak daude oinarrian. Mitoak, ipuin sorta bat baino gehiago dira mundua ikusteko era bat; gizakien arteko hartuemanak azaltzen dizkigute, eta gizakien eta izadiaren artekoa.

Barandiaranek 60 bat toki-izen baino gehiago jaso zituen Ataunen, zenbait mitoren izenekin loturik: Jentilbaratza, Sugarzulo, Agamunda, Erremedio, Iturrisantu, Muskia, Lamiñosin, ... Zaila da Ataunek adina mito gorde duen herriarik topatzea.

Hamabi bat minutu iraungo duen diaporama honen helburu nagusiak, natura eta siniskerien kulturaren uztartetan sustraituta daude. Euskal mitologiaren berri emanaz, Joxemiel Barandiaranen figura gerturatu eta azaldu nahi da, Ataun eta Aralarko

ondare eta natur aberastasunak agerian jarritz.

Diaporama honen gauzatzeak bi maila desberdinetako aktuazioa eskatu du. Bata sormena eta errealizazioa da (gidoia, argazkiak, ...) eta bestea baliabide teknikoak (proiektoreak, ordenagailuak, ...). Udalbatzaren eskariz Diapolan etxea ari da burutzen eta bere kostua 4.300.000 pezeta izango da, milioi bana pezetako laguntza agindu dutelarik Diputazio eta Jaurilaritzak.

San Gregorio auzoan eraberritutako eskola zaharretam egokitu den aretoan proiektatuko da

DIAPOSITIBEZ OSATURIKO IKUS- ENTZUNEZKO EMANALDIA DA

ATAUNGO KARTOGRAFI-TOPONIMI MAPA

**JOXEMIEL
BARANDIARANEK
EGINIKO MAPA
TOPONIMIKOA**



**JOXEMIEL
BARANDIARAN
ETA JUAN
ARINEK EGIN
ZITUZTEN
AURREKOAK**

Aspalditik faltan botatzen zen gaia dugu hau. Bere garaian Joxemiel Barandiaranek edota Juan Arin Dorronsorok egin zituzten, eskuz, antzeko planoak, baina gaurko beharretarako atzeratuak gelditu dira.

Arrazoi honegatik, urteetan zehar jaso eta gorde diren garai bateko leku izenak eta egungo teknologiak eskeintzen dituen aukerak batuz Udalerrri osoa biltzen duen Ataungo kartografi-toponimi mapa bat egingen ari da Udala.

Bere ezaugarri nagusienak hauek dira: 1:15.000 eskalan egingo da, bere neurria 1.000 x 700 mm-koa izango da eta 2.000 ale argitaratuko dira.

Mapak bi alde izango ditu. Aurrekaldean ohiko seinalizazioa jasoko du: mugak, errepideak, mendiak, errekek, auzoak, etxeak, ... eta toponimia. Hemen ahalik eta izen gehien jasotzen ahaleginduko da.

Atzekaldean herriko ondarean eta eskeintzen dituen beste aukera desberdinetan oinarritutako gauza ikusgarrienak azalduko dira: eraikuntza historikoak, kobak, karobiak, trikuharriak, ibilbideak, ...

Eskeintza ezberdinak aztertu ondoren lan hauek Etnogintza entresari agindu zizkion Udalak 4.885.920 pezetako aurrekontuarekin. Esan, aurrekontu honi aurre egiteko %75eko dirulaguntza hitzartua duela Udalak Eusko Jaurlaritzarekin.

**URTEETAN
ZEHAR GORDE
DIREN GARAI
BATEKO LEKU
IZENAK
JASOKO DITU**

bi hitzetan

1.553 gara Ataunen

Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarra

Industrialdearen garapena

36ak saldu dira

Operario lanpostua

Zuhaitz eguna

%1'5 igo dira 1999rako Udal zergak

Errepide plan berria

Ikastaro ezberdinak herrian

Erloju berriak San Gregorio eta

San Martingo Elizetan

Altzanipera espaloia

Lorazaintza lanak

Nitxo gehiago

Buruhaundiak

Ataun aztergai beka

Auzolandegia 99

Argazki lehiaketa

Stop

a
o
i
r
a
m
u
n

1.553

GARA ATAUNEN



t
AIA AUZOA

Urtarrilaren 1a erreferentzia moduan hartuta, 1.553 biztanle gara Atauen modu honetan banatuta:

<i>San Martinen</i>	1.015
<i>Helbarrena</i>	618
<i>Astigarraga</i>	81
<i>Arro ndo a</i>	88
<i>Arin auzo a</i>	37
<i>Otadi aldea</i>	32
<i>Suki aldea</i>	38
<i>Otamots aldea</i>	29
<i>Aizarte</i>	55
<i>Ustatxo aldea</i>	37
<i>San Grego rio n</i>	398
<i>Erdigunea</i>	194
<i>Ergo iena</i>	103
<i>Lauztierre ka</i>	37
<i>Murko ndo</i>	34
<i>Urrutxu mendi</i>	29
<i>Aian</i>	141

1998ko urtarrilaren 1ean 1.568 ginen Ataunen, beraz urtebete buruan 15 lagun gutxiago gara, 5 gutxiago San Martinen, 4 San Grego- rion eta 6 Aian. Astigarraga, Arrondoa eta Ustatxo aldea izan dira biztanle kopuruari eutsi dioten auzo bakarrak. 1998an 21 herritar izan ziren hildakoak eta 11 jaioetakoak. Bestalde, 13 lagun dira beste udalerrietatik etorriak eta 18 kanpora joan zirenak.

EUSKAL HERRIKO UDAL ORDEZKARIEN BILTZARRA

L 999ko otsailaren 6an Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa, Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoako alkate eta zinegotziak elkartu ziren Iruñean, udal izaeran oinarritutako euskal instituzio nazionala eratu zelarik bertan, erakunde iraunkorra izateko asmoarekin. Ataundik alkateak eta bi zinegotzik parte hartu zuten batzarrean. Bertan Euskal Herriaren nazio izaera aldarrikatu zen eta herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eta lankidetzak sakontzen joateko borondatea agertu. Bertaratu ez ziren hautetsiei aurrerantzean bateratzeko gonbitea luzatuta gelditu zen.

INDUSTRIALDEAREN GARAPENA



INDUSTRIALDEA ERAIKIKO DEN LUR SAILA

O satu da Zubikoetako industrialdearen garapenerako bertako jabe diren eta Udalaren artean konpentsazio junta. Konpentsazio proiektua ere denen oneritziarekin egin eta onartua izan

da. Bertan, jabe bakoitzak dituen zamak eta onurak zehazten dira. Bai juntaren osaketa eta baita proiektua ere, Udalbatzari aurkeztu zaizkio eta honek onartu egin ditu. Beraz, oinarriak jarrita daudela esan daiteke.

36ak SALDU DIRA

Amaitu berri dira San Martinen eraiki diren babes ofizialeko 36 etxebizitzak eta martxoaren 10ean Patxi Ormazabal Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburua eta Jabier Telleria Arkitektura Zuzendaria izan ziren Udal ordezkariekin batera hauek ikustatzen. Esan behar da, dagoeneko etxebizitza guztiak salduta daudela eta etxabeak gelditzen direla saltzeko.



OPERARIO lanpostua

Ataungo Udalak operario (peoi) lanetarako lanpostu bat du bere langile planti-lan. Lanpostu hau izaera finkoz beteko duen pertsona aukeratzeko, lehiaketa-oposaketa libre bidezko hautaketa-prozesurako deialdia egin zuen Udalak. Hautaketa-prozesu honetako frogetatik ondorioztatuta, egokiena ikusten den pertsona izango da aukeratuko dena.

Deialdi honen iragarkia Legeak agintzen dituen aldizkari ofizialetan argitaratzeaz gain etxe guztietara banatu zuen Udalak herritar guztiak jakinaren gainean egon zitezen eta interesdunak prestatu eta deialdira aurkeztu ahal zitezen.

Hautaketa prozesua ekainerako amaituta izatea aurrikusten da eta beraz lanpostu hau izaera finkoz nork beteko duen ordurako jakingo da.

ZUHAITZ eguna



t

HERRIBIDE ZAHARREAN LANDAKETAK EGITEN

Otsailaren 27an ospatu zen aurtengo Zuhaitz Eguna. Egun honen inguruan programa txiki bat osatu zen eta erantzun jatorra izan zuen.

Diapositiba proiektzioa eta erakusketa, Jexux Lopez biologoaren eskutik joan ziren. Gure probintziako zuhaitz eta zuhaizkien inguruko datu bitxi eta oso argibide kuriosoak azaltzen zituen.

Eta egunari dagokion bezala herribide zaharrean zuhaitz landaketa bat egin zen. Ubarriko zubitik Astigarragako parkera bitartean moeta desberdinetako 35 landare aldatu ziren: gereziak, gaztainak, sekuoiak, astigarra, intxaurrondoak, ...

Ekimen honekin loturik, laister herribide zaharrean zehar dauden zuhaitz mota desberdinen izenak azalduko dituzten 100 adierazgarri jarriko dira.



^t
SAN MARTINA URA ERAMETEN DUEN ÁGERREKO DEPOSITUA

%1,5

igo dira

1999rako ZERGA

L 998ko urriaren 7an, Udaltzatzak 1999rako Udal zergak onartu zituen. Orokorrean igoera %1'5ekoa izan da, baina bi salbuespen izan dira: Bata, ur-hornidurari dagokiona, hau %15 igo da, gai honetan Udalak dituen gastuak zerga bidez jasotzen duena baino askozaz handiagoak direlako, eta helburua gastuak sarrerekin parekatzea delako. Bigarrena, zabor bilketari dagokiona, hau ez da batere igo, jasotzen denak Udalak dituen gastuak parekatzen dituelako.

errepide PLAN BERRIA



Eusko Jaurlaritzak jendaurrean eduki berria du Euskal Autonomi Erkidegoko 2. Plan Orokorraren Aurrerapena deituriko agiria. Plan berrian desagertu egiten dira lehendik aurreikusita zeuden San Martin eta San Gregorioko barianteak eta auzo hoietan bideen hobekuntza bat egitea proposatzen da. Horrez gain, gaur egun Beasaindik datorren bidea San Gregorioraino bakarrik hobetu eta zabaltzea planteiatzen da.

Plan honi alegazioak aurkeztu zizkion Udalak. Lehenik, San Gregorioraino bakarrik ez, baizik eta Kaxetaraino hobetu eta zabaltu behar zela bidea eskatuz. Bigarren, San Martin eta San Gregorioko zeharbideen hobekuntzak zer esan nahi zuen galdetuz.

Kaxetaraino izango dena onartua dago iadanik, eta Udal ordezkariak Foru Aldundiko Errepide Saialarekin San Martin eta San Gregorioko zeharbideei zer alternatiba eman aztertzen ari dira.

IKASTARO EZBERDINAK

herrian

Udala, herrian ahalik eta zerbitzu gehien izatearren ahalegin handi bat egiten ari da, eta zentzu horretan urte garai ezberdinetan herritarrei moeta ugaritako ikastaroak eskeintzen zaizkie.

Haur eta gaztetxoentzat

Zoritxarrez orain urte batzuk arte, jende askok astean zehar inguruko herrietara joan behar izaten zuen ikastaro ezberdinetan partehartzeko. Egoera hau, bai guraso eta baita ikasleentzat ere, ez zen oso erosoa, eta honi aurre egin nahian antolatu ziren musika, dantza eta ingeles ikastaroak.

Musika arloan, aurten ahalegin berezi bat egin nahi izan da. Pianoa derrigorrezkoa zen bere iharduera-rako eta Eskola eta Udalaren artean musika tresna hau erosi egin da. Guztira 440.000 pezeta kostau da.



t
EROSI DEN PIANO

Helduentzako

Azken urteetako dinamikari jarraituz, aurtengorako ikastaro ezberdinak eskeini zaizkie herritarrei eta apuntatu diren 45 lagunen-tzat ondorengo bost hauek eratu dira: egur talla, hari lanak, haltzarien zaharberritzea, margolaritza eta sukaldaritza. Inoiz baino erantzun hobea aurtengoa.



t
PIRAGUISMO IKASTAROA
ZUBIKOETA INGURUAN

Udako ikastaroak

1998ko udako kirol ikastaroen arrakasta ikusi ondoren, aurten ere Foru Aldundiaren laguntzarekin berriro antolatuko dira 8 urtetik 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Hiru ikastaro izango dira aurten, pasa den urtean bezala piraguismo eta eskalada ikastaroak, eta arku tiraketa izango da berria.



t
ESKALADA IKASTAROA

ERLOJU BERRIAK

San Gregorio eta San Martingo elizetan

Urtebete barruan aldatu dira San Gregorio eta San Martingo elizetako erlojuak. San Gregorioko kasuan, esfera ere hautsita erabat hondatuta geldirik aurkitzen zen. Berria, erabat elektronikoa da eta kanpaikadak lehengoak bezala jotzeaz gain, ordua aurreratu eta atzeratu automatikoki egiten du, mantenimendurik apenas behar duelarik. Guztira 650.000 pezeta kostatu da.

San Martingo kasuan 1900. urteko erloju zaharra oraindik martxan zebilen, baina berrikuntza baten premia zuen. Horretan adituak diren enpresen iritziz, berrikuntzak pieza berriak sartzea eskatzen zuen, ondorioz bere benetako zaharkin kutsua eta balioa galduz. Era berean orduaren prezisioaz ez zuten erabateko garantiarik ematen eta gaurdaino bezala mantenimenturako pertsona baten beharra izango litzateke. Hau dena aztertuta, Udalak San Gregorion bezala San Martinen ere elektronikoa jartzea erabaki du, gaurdainokoak zituen berezitasun guztiak izango dituelarik. Kasu honetan garestiagoa izango da, 1.000.000 pezeta, kanpaiak jotzeko elektromazo gehiago eta handiagoak behar dituelako.

Erloju zaharra Udaletxean jarriko da erakusgai, eta Udalak urte luzeetan erloju honen ardura izan duen Jose Luis Kerejetari eskerrak luzatzen dizkio aldizkari honen bitartez.



**SAN GREGORIOKO
KANPANTORREA**

ALTZANIPERA espaloia



▶ ALTZANIPERA ESPALOIA

Plazako zubitik Altzanipera espaloia egin da, bide hori egin behar duten oinezkoak errepidetik ibili ez daitezzen. Lan hauek Azse empresari eginarazi zizkion Udalak 1.566.000 pezetako aurrekontuarekin.

Honez gain, Altzanipeko jabekideei etxe berriek izango duten garaje sarreratik beraien ere sarrera egin zezaten aukera eskeini zitzaaien eta momentuz ezezkotan dira. Etorkizunean horrela erabakiko balute, Altzanipera doan bide azpitik pasabidea egina geratu da nahi dutenean beraien sotoarekin komunika dezaten.

l o r a z a i n t z a LANAK

Kaleak garbi izateaz gain jardinak edo lorategiak txukun izateari geroz eta garrantzi gehiago ematen zaio, eta zentzu honetan lanak pilatu egin zaizkio Udalari. Lehen, hainbat etxe inguruetakoko lurak Udalari lagatu gabe zituzten jabekideek, eta hauek arduratzen ziren lan hoiek auzolanean egiteaz. Egoera hori erregularizatzen joan da eta orain etxe inguru asko Udalaren ardurapean gelditu dira. Lan hauei aurre egiteko Udal langileez gain Ikerlora empresa kontratatu izan du Udalak, 1998an 780.680 pezeta zuzendu behar izan dituelarik kontratazio honetara.



NITXO gehiago



SAN MARTINGO HILERRIA

Epe laburrean nitxo gehiago eraikiko dira San Martin eta Aiako hilerrietan, 36 San Martinen eta 18 Aian, hain zuzen ere. Lan hauek maiatzean adjudikatuko ditu Udalbatzak, haserako aurrekontua 5.760.676 pezeta delarik. Piskan-piskan ari da Udala hilerriak nitxoz hornitzen, lehendik eginda dauden lurperaketak oraindik nahiko berriak izateak ez du posible egiten aldiko gehiago egitea eta.

BURU haundiak



Herriko jaietarako, ume eta haundigoen gozamenarako buruhaundi batzuk erosi dira. Orain arte beste herrietatik ekarriz baliatu bagera ere hemendik aurrera ez dugu horren beharrik izango. Hemengo esaundatako hiru pertsonaietan oinarrituak daude: Tartalo, Sorgina eta Otsoa.

ATAUN aztergai beka

Dakizunez, Ataungo Udalak iaz argitaratu zuen III. Ataun Aztergai Bekaren barnean irabazle gertatu zen “Migel Imaz Apalategi. Azterketa historikobiografikoa” lanaren emaitza. Honez gero pertsonai hau gertuagotik ezagutzeko balio izango zitzaizulakoan gaude. Liburu honen aurkezpena 1998ko uztailaren 29an, Ataungo Udaletxeko Areto Nagusian, izan zen. Bere egileak, Iñaki Imaz Mujikak, lan honen azalpenak eman eta ataundar pertsonai honen beste xehetasun batzuk agertu ondoren, Astigarragako zubian (1921ean Migel Imazek eraikitakoa), plaka bat jarri zen bere oroimenez.

Liburua, Ataungo etxe guztietan dohan banatu zen eta bestalde, salgai jarri da 700 pezeta-tan. Ekimen guztia 420.000 pezeta kostatu da eta Eusko Jaurlaritza eta Kutxa Fundaziotik 225.000 pezetako laguntza izan da.

Bestalde, laster kaleratuko da II. Ataun Aztergai Bekako Lourdes Altunaren lana “Kablea Ataunen”. IV. Ataun Aztergai Bekako Maximo Aierberen lana ere -“Ataungo Kantu Zaharrak”- zuzenketa prozesuan aurkitzen da eta uda baino lehenago argitaratzea espero da.

Dagoeneko, V. Ataun Aztergai Bekako deialdia eginda dago eta gogorarazten dizuegu proiektuak aurkezteko epea maiatzaren 8an amaitzen dela.

auzo LANDEGIA 99



t
**98AN GARBIKETA
LANETAN**

Ataungo ondarea babestu eta zaindu nahian, iaz Larruntza errotaren inguruan auzolandegi bat antolatu zen Kutxa, Arantzadi eta Ataungo Udalaren artean. Jarri ziren helburu guztiak ez ziren bete, izan ere uste baino lan gehiagorekin aurkitu ziren eta. Aurten ekimen honi jarraia eman nahi eta, antolatuko den beste auzolandegi baten bitartez bigarren fase bati ekingo zaio. Uztailaren 12tik 25era egingo den auzolandegian beraz, presatik errotarainoko azterketa topografikoa burutuko da garbiketarekin jarraituko delarik.

argazki LEHIAKETA



t

"TXINDOKI ATAUNDIK". JOXE RAMON AGIRRE

98ko Argazki Lehiaketaren epaia ondoren agertzen den modura suertatu zen oraingoan:

- 1.- Lehen saria (60.000 pzta) Joxe Ramon Agirrarentzat. Bere argazkia, "Txindoki Ataundik" izan zen.
- 2.- Bigarren saria (25.000 pzta) Amaia Auzmendiri eman zitzaion, "Lareo elurretan" izeneko argazkiarengatik.
- 3.- Hirugarren saria (15.000 pzta) Felix Urrutiarentzat izan zen, "Gerizpetan" argazkiarengatik.


Guztira 35 argazki izan ziren lehian. Abenduaren 18tik 31ra, argazki guztiakin, erakusketa bat antolatu zen udaletxeko ganbaran. Sari ematea abenduaren 19an egin zen.

Lehen bi argazkiekin postalak argitaratu eta zabaldu ziren herrian. Hirugarren edizio honekin 8 postaleko bilduma osatu da dagoeneko. Parte hartu duten egileei eta aurkeztu gabe gelditu direnei, hemendik luzatu nahi die Udalak gonbidapena aurtengo lehiaketarako, deialdia egina bait dago, eguraldiak eta urte sasoiak eskeintzen dituzten aukera paregabe hoiek aprobetxatuz.

STOP



Hildako abereak erre kara botatzen dituenik bada oraindik, horrek suposatzen duen guztiarekin. 1999ko urtarrila geroztik 4 arkume, ardi bat, txekor bat eta txakur bat izan dira udal langileek Agauntza errekatik atera dituztenak. Aurrerantzean horrelako kasuan suertatzen denak deitu beza Sasietara eta mesedez ez gehiago bota hildako abererik erre kara.



- Ataungo Udaleko udal-informazio aldizkaria -

• ARGITARATZAILEA •
ATAUNGO UDALA

• MAKETAZIOA • INPRIMAKETA
antza S.A.L.

• Lege Gordailua: SS - 1119/95

ATAUNGO UDALA ☎ 943.18.00.11